

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko maiatzaren 9a

*



Arturo Campione euskaltegi irakasleak, dotore jantzita, orain hainbat urte ateratako argazkian.

Arturo Campione 25 urte

■ Arturo Campione Iruñeko IKako euskaltegia 25. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizun berezi hori behar den bezala nabarmentzeko, hain zuzen, ekitaldi ugari antolatu dute euskaltegi kideek. Egun hauetan, adibidez, Iruñeko argazkilari gehienek osatu erakusketa dago ikusgai Descalzos kaleko Erraldioen Txokoan, eta argazkilari horien lanekin ere *Iruñean hogeita bost urte* izenburuko liburua kaleratu du Arturo Campione. Ekainera bitartean beste

ekitaldi ugari egingen dituzte urteurrena ospatzeko, baina horiek baino garrantzitsuagoa da data berezi horrek —25 urte Campione iruindarren artean— euskaltegi kideengan, oraingo eta lehenagoko kideengan, piztu duen sentimendua. Sagrario Aleman zuzendariak geletatik pasatu diren ikasleak, *Campionkume* guztiak, ditu buruan —eta bihotzean—. Euskaltegiarekin zerikusi izan duten edo duten beste hainbat lagunerekin iritzia ere jaso dugu. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Araitz haraneko belaze batean suertatu zitzaidan artzain harekin solastatzea, eta baita haren mintzoaz gozatzea ere. Ameriketara ibilia zen luzaro, ardiak zaintzen, eta biziki antzematen zitzaion han ikusi eta sentitutakoa oso barrenean zeramala oraindik. Izan ere, Balerdiren magaletik Pampara joandako artzain hura apartekoa zen hizketarako eta, bere jiteagatik —grinatsua zen gizaseme hura!—, Argentinara jo genuen eleen poderioz, eguzkia iluntze aldera makurtzen den ordu horretan. Berriketaren une batean, behin arditan zebilela tigre bat atera zitzaioala esan zidan, berrari eraso egiteko asmoz, gainera. Bai tol, pentsatu nuen nire baitan. Nirekiko, Martin Fierroren zelai eta oihan zabaletan ez zen halako animaliarik; niretzat, tigreaken barrutia Asia besterik ez baitzen. Esan ere esan zidan, gorriak pasatu zituela tigre uxatzeko ahaleginean, eskopeta erabili behar izan zuela, eta, finean, tiro hotsak uxatu zuela haren fortunarako. Artzainaren ha-

Atzapar sendoak

ropuzkeriak sesiorako gogoa piztu zidan: zirika ari zen nirekin, duda gabe. Akaso, puma edo beste piztiaren bat izan zitekeela ihardetsi nion nik. Baina, ezetz!, hura tigre zela, bere begiekin aurrez aurre ikusitakoa, alegia. Gogoan dut oraindik solasaldi samur eta esanguratsu hura, besteak beste, tigreaken kokapenari buruzko nire ustea, erdia ustel zela konturatzera: «Kontxo, eta benetan balego tigrerik Ameriketara?»

Ez dut esanen *Tigre ehizan* liburua osatzen dituen hogeita hamar argitua dudana Aingeruk artzain hark nigan sortutako zalantza. Baina esan nahi dut, ozen gainera, zalantzarik gabe honakoan, kontaketa landu, ondo girotu eta tentsioz bete idatzi duela Epaltzak. Estuki lotzen zaio egilea baita lan honetan ere, oso berezkoa duen idazkerari. Hizkuntz erregistro alde-rik, kasu, artista bat da Epaltza.

Aingeruren *Tigre ehizan* azken liburua- ren hizkera aurrekoen bide beretik doa,

zorrotz eta joria. Zertxobait kamustu duela esango nuke, beti ere, berak zuzen joratu- tako ildotik aldendu gabe eta, irakurlearen onerako. Idazten duelarik, exijitu egiten dio bere buruari. Bere lexiko, aditz joskera, mintzamolde ezberdinen erabilerak... frogatzen dute ongi. Haren lanak ez dira arin irakurri behar, astiro baizik. Bere liburuk —*Ur uherrak* nahi dut gogora ekarri— lehenengo begi kolpetik aise sartzen ez direlako.

Esku ahurrak nigana zuzentzen zituela, piztiaren atzaparrak bailiren, atxiki zait edadeko artzain haren irudia nire iruditegi pertsonalean; nola haizeak hitz bat edo beste eraman zuen mailoetatik haruntza, biok patxada ederrean aritzen ginen bitartean, adin kontu, jatorri eta protokoloaren beste arretarik gabe.

Mailoetako kontalari harekin gertatu zitzaidan modura, baita hitz bat edo beste galdu dut ere tigreaken ehizean. Baina ez du axolarik, ehizak merezi zuen eta. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Gares: Raimundo Amadorrek kontzertua emango du bihar, hilak 10, gaueko 23:00etan, Gares aretoan. Sarrerak 1.800 pezetan (72 libera inguru) izanen dira salgai.

Barañain: Barañaingo abesbatzak kontzertua emango du bihar, hilak 8, arratsaldeko 20:30etan, Santa Maria elizan.

ANTZERKIA

Zizur Nagusia: *De ida y vuelta* eta *Como esa flor marchita* dantza eta antzerki ikuskariak taularatuko ditu Trompel O'Eil konpainiak gaur, hilak 9, eta bihar, hilak 10, gaueko 22:00etan, Kultur Etxean. Sarrerak 500 pezetan (20 libera) izanen dira salgai.

Iruñea: *Printze txikia* haurrentzako antzezlanaren taularatuko dute bihar, hilak 10, eguerdiko 12:00etan, Gaiarre antzokian.

ERAKUSKETAK

Burlata: *Euskara betiko mintzoa* izeneko erakusketa izanen da ikusgai maiatzaren 18ra arte Kultur Aretoan.

Lizarr: *Los escritores, hitos de la literatura clásica euskérica* izeneko erakusketa izanen da maiatzaren 1era arte Gustavo de Maeztu museoa. **Iruñea:** GIB-Hiesaren hedatzea gelditzeko irudiak izeneko erakusketa zabalduko dute astelehenean, hilak 12, NUPeko gelategian. Ikusgai izanen dira Europa osoan bilutako 54 kartel, 129 diptiko, 84 postal eta 26 pegatina. Nafarroako Gazte Kontseilua da antolatzailea.

BESTELAKOAK

Tafalla: Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio bertso afarian ariko dira gaur, hilak 9, gaueko 22:00etan, La Peña ostatuan, eta Nafarroa Oinez-ek antolatuturik.

Aralar: Nafarroa Kirol Elkarteak Aralar mendizerrara ateraldi espeleologikoa antolatu du heldu den iganderako, hilak 11. Itzarretako iturburu eta Lezegaldeko lur azpiko lakua bisitatuko dituzte. Hitzordua Iruñeko autobusetan egin dute, goizeko 08:00etan.

Iruñea: Donibane atzoko jailetako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Jai Batzordeak. Kartelak A-2 tamainakoa izan behar du, eta *Donibaneko jaiak 1997 fiestas de San Juan* izan behar du idatzirik. Lanak maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira AEK-ko Irrintzi euskaltegian (Iratxe, 45). Irabazleak 12.000 pezetako tiketa (480 libera) jasoko du, Xalek musika- eta liburu-dendan gastatzeko.

nafar kronika

Fermin Erbiti

Zoriontasun garai hura

Aterabiderik gabeko tunel beltz eta luzearen barruan, zoriontasun garai hura lekutan dagoela konturatzen gara. Gogoratu: Osasuna UEFAn, arazo ekonomikorik gabe, bertze taldeen eredu bihurturik; pilotan nafarrak etsairik gabe, banaka eta binaka; hori dena hau bezalako lurralde tiki batentzat aski ez, eta Indurainek zezenen aintzinean ezezik bizikleta gainean ere mundialak ginela erakutsi zuen bortz aldiz.

Kirol arloan gu bezalakorik ez zela erakusken ari ginen bitartean, politikan amesturiko zoriontasun-lasaitasun giroa genuen bi alderdi nagusien arteko hitzarmen etengabeakoa eskertu. Gehiago eskatzerik al dago?

Horrela bizitzen ohituta geundelarik, bat-batean, Nafarroako egoera politikoaren oreka sakratua hautsi zen, garai bateko lasaitasun giroak ezkututzen zuen zikinkeria egunkariaren lehen orrialdeak betetzen hasi zenean. Gauza jakina da zorigaitz batek bertze zorigaitzak erakartzen dituela, eta, bertzalde, betidanik entzun dugu politika eta kirolaren arteko harremanak uste baino handiagoak direla. Ez da harritzekoa, beraz, politikan lasaitasuna galduta, kirolan ere hondoratzen hastea: Osasuna, UEFA jokatzan zueneko garai haiek ahantzirik, bigarren dibisiora joan zen. Igo behar dugu lema

ere alde batera utzita, orain jokalaria, entrenatzaile eta osasunzale guztiek, etsita, *Jaitsi behar dugu* diote.

Osasunzale izateari utzi eta txirrinuzale bihurtu zirenek afizio hori ere utzi behar izan zuten Indurainek, neguko egun euritsu hartan, agur erran zuenean. Pilota txapelketa hasi eta, orduan bai, orduan nafarrok pozik azken urteetan bezala gipuzkoarrei erraz irabaziko genielakoan. Final handiaren bezperetan, ordea, inoiz baino argiago ikusten dugu Elkorok, azken partiduetan bezala jokatzu gero, hain gure zen txapela preziatua Gipuzkoara eramane dezakeela.

Zer egin dugu guk, nafarrok, hainbertze zorigaitz pairatzeko? Herri honetan ez al da inor gauza duela guti arte genituen zoriontasuna, harrotasuna eta lasaitasuna berriro ekartzeko? Martin Osasunako entrenatzailearena bezain lan zaila izanagatik, jaingoikoaren deia zer den dakien baten batek lor lezakeelakoan nago. Izan ere, alderdi barruko hauteskundeak irabazten trebea ez bada ere, oso argi baitu nafarrok zer nahi dugun eta hura nola lortu. Bada, kinka larri honetatik atera gaitzakeen salbatzaileak bertze zereginak utzi eta, faborez, lehen bait lehen argi diezaigula guk, pekatariok, segitu beharreko bidea eta eramane gaitzala betiko zoriontasunera. Amen.



asteko pertsonaiak



Martin Monreal
Osasunako entrenatzailea

■ Martin Monreal Osasunako entrenatzaile berria da. Joan den astelehenean Miguel Sola kargutik kentzea eta Martin ordezkari izendatzea erabaki zuen Zuzendaritza Batzordeak. Arrizabalagakoa da bera, eta denboraldiko laugarren entrenatzailea da. Haren aurretik aulkian eseri dira Benitez, Zabalza eta Sola, eta horietako inork ez du Osasuna Bigarren B Mailarako bidetik aldendu. Entrenatzaile aldaketek ez dute ezer konpondu. Gauzak horrela, akaso, hobe litzateke Martin entrenatzaile bezala kontratatu ordez, jokalaria bezala kontratatzea. Etxeberrria eta Irigibelekin batera. Beste aukera bat Lourdesera joatea da; izan ere, miraria gertatu beharko litzateke Osasuna Bigarren A Mailan geratu ahal izateko.



Javier Chourraut
Iruñeko alkatea

■ Iruñean Sanferminen lurrina usna daiteke jada: kartela aukeratu dute, heldu den astean tonbola muntatzen hasiko dira, eta Udaltzako partaideek, urteroko ohiturari jarraiki, Riau-riauaren inguruan adierazpenak egiteari ekin diote. Adierazpenik esanguratsuenak Javier Chourrautenak izan dira. Iaz Riau-riaua egitearen alde sutsuki aritu zen lanean. Aurten kontrako jarrera agertu du: «Alkate naizen aldetik esan behar dut aurten ez dela Riau-riaua egiteko urterik egokiena». Nolanahi ere, ez du atea erabat itxi: «Udaleko taldeek eskatzen badidate, nik pozik esanen dut baietz». Ez dirudi, haatik, taldeek eskaera egiteko bat eginen dutenik. Oso litekeena da aurten Riau-riaurik ez izatea.

ahaztu gabe!



GAZTE ELKARTEEN EGUNA

San Adrian: Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatuturik, Nafarroako Gazte Elkartearen Eguna ospatuko dute heldu den igandean, hilak 10, San Adrianen. Orotara, zortzi eremu antolatuko dituzte, eta horietako bakoitzean hainbat ekitaldi izanen dira: kultura, kirola, ingurugiroa, musika, hezkuntza, jokoak, informazioa..., denetarik pixka bat. Gazte Kontseiluak ospakizuneari parte hartzeko gonbit berezia egin die Nafarroako gazte elkarte guztiei. Dena dela, haiez gain Nafarroako gazte guztiek har dezakete parte San Adriango topaketan. Jai antolatzeako kontseiluak 1.845.000 pezeta gastatu ditu. Eguna bera antolatzeaz gain, 5.000 triptiko, 2.000 kartel eta 4.000 pegatina plazaratu dituzte, institutu, unibertsitate eta udaletxeetan banatzeko. Antolatzaleen arabera, ospakizunaren helburu nagusiak dira «gazteen autoantolaketa bultzatzea, eta talde bizitza indartuz gazteen bizi kalitatea hobetzea».

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Iruñea

Euskalerria Irratiak haurrentzako egundoko jaialdia egingen du Labriten

Festa maiatzaren 17an egingen dute, eta hainbat taldek hartuko dute parte

Euskalerria Irratiak haur jaialdia antolatu du maiatzaren 17rako. Festa Labrit pilotalekuan egingen dute, arratsaldeko 17:30etatik aurrera, eta zer ikusi eta zer entzun ez da faltako: pailazoak, haur kantariak, 'Goenkale'-ko aktoreak. 'Xingulu-Mangulu', irratiko haurrentzako saioko jaia izanen da.

Enrike Etxarte / Iruñea

IRUÑEKO Euskalerria Irratiaren gainean zer erran handia bada bolada honetan: antena berriaren arrakasta dela, entzulearen hedapena dela, Larreko sariaren afaria dela. Baina egutegiari erreparatzera, behintzat, datorren astean egingen duten haur jaialdia aipatu behar da. Duela bi urte antolatu zuten lehendabiziko, eta orduan bildu zen jendetza ikusita animatu dira bigarren antolatzerara, Euskalerria Irratia elkarteko Elena Ezkietak erran digunez, «irratia gizarteratu behar dugu, eta, xede hori jotzeko zenbait gauza antolatzen ditugu urtean. Datorren asteko jaialdian Iruñerriko haur euskaldunak erakarri nahi ditugu, gero eta gehiago baitira, eta irratia ezin dezake bazter utzi adin tarte jendetsu hori».

Horregatik, zortzian behin, larunbatero, Xingulu-Mangulu saioa egingen dute, eta bertan Iruñerriko ikastola eta ikastetxe elebidun guztiak hartzen dute parte, txandaka. Bitxia da, gainera, saioaren izena, eta Mikel



Euskalerria Irratiko kideek orain dela bi urte ospatu zuten haurrentzako jaialdia.

EUSKALERRIA IRRATIA

Bujanda zuzendariak gogoan ongi gordeta dauka nola hartu zen: «Ba, aita Damaso Intzakoaren esaera zaharren liburuan topatu genuen hitz-joko hori —xiguli-mangulu— haurrei Uitzama aldean kantatzen zaiena, eta, huraxe aukeratu. Eta bigarren, edo hirugarren saioa egiten ari ginela, ez zigun, bada, emakumezko batek telefonoz hots egin esateko berak txikitari ikastetxeko esamoldea zela hura? Eta emakume hura etxekoandrea zen, euskaldunzaharra, nongoa eta Eugiko alaba, eta, esaldi edo kantu osoa abestu zigun: Xin-

guli-mangulu, gure haurra nongo, ona bada etxeko, gaixtoa bada, kanpoko, tturut, tturut, ez, ez, haur hau guretako».

Jaialdia, beraz, datorren larunbatean egingen da, maiatzaren 17an, Iruñeko Labrit pilotalekuan, arratsaldeko 17:30etan hasita. Nafarroako Kantu Txapelketan ibilitako haur batzuk ariko dira lehenbizi: Zubiriko Xabier Zubiri ikastetxe publikoko haur kantariak, Burlatiko Ermitaberri ikastetxeak, eta Atarrabiako Paz de Ziganda ikastetxeko dantzariak. Ondoren, haurren eta helduen zangoak ederki

dantzarazten dituzten lagun irri-eragileek segida emanen diote arratsaldeari, hots, Kiki, Koko eta Moko ariko baitira haurren jostagarri. Hortaz landara, bihar zortziko jaialdiak bertzerik ere izanen du, aurkezpen lana bi lagun ezagunek egingen baitute, Goenkale-ko Sarak eta Karlosek, hain zuzen, edota, bataiarriko izena erabiliz, Anabel Arraiza lakuntzarrak eta Joxe Kruz gipuzkoarrak. Sarrerak salgai daude Euskalerria Irratian, 400 pezetan (16 libera) edo, bertez, erosi ahal izanen dira Labriten jaialdiaren egunean. X

Atarrabia

Astehenean hasiko da emakumei eskaini astea

■ Laugarren aldiz ospatuko dute ostiralera arte

Erredakzioa / Iruñea

ATARRABIako UDALAK antolatuta, Udaberriaren eta Emakumearen Astea ospatuko dute laugarren aldiz, astehenetik ostiralera bitartean. Egun horietako ekitaldiak ezezik, herriko hainbat emakume egindako ikastaro eta tailerretako lanekin erakusketak ere egingen dute jubilatuen elkarteak, asteartetik ostiralera arte.

Egitarauari dagokionez, astehenean Zeresarik ba al dugu emakumeok? izenburupean mahai-ingurua egingen dute Udaletxeko plazako jubilatuen elkarteak, arratsaldeko

19:00etan. Idoia Altadill, Blanca Fernandez, Begoña Arrieta eta Celia Oizek hartuko dute parte.

Hilaren 13an, asteartean, La Trova taldearen kontzertua izanen da, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian, eta biharamunean, Maite Leonen Fundacion Psicoballet taldea ariko da udal zineman, arratsaldeko 19:00etan.

Ostegunean, Sabina antzerki lana ikusteko aukera izanen da Atarrabiako udal zineman, 19:00etan. Ostiralean, azkenik, herri bazkaria egingen dute Atarrabiako emakumeek, bai eta Los puentes de Madison filmean ikusteko aukera ere. X

Noain

Hiru lehiaketa antolatu ditu Kultur Patronatuak

■ Margo lehiaketa hirugarren aldiz egingen dute

Erredakzioa / Iruñea

NOAINGO Kultur Patronatuak, udaberria ospatzeko antolatutako egitarauaren barruan, hiru lehiaketa iragarri ditu herritarrek parte har dezaten. Lehenengo, margo lehiaketa da, eta hirugarren aldiz egingo dute aurtentzen. Elortz bailarako hamabost urtetik gorakoek hartu ahal izanen dute parte. Gaia librea da, eta hilaren 16an amaituko da lanak aurkezteko epea. Irabazleak 30.000 pezetako saria irabaziko du, eta bigarrenak 15.000 pezetako.

Bestalde, bigarren aldiz, zeramika lehiaketa egingen dute,

aurrekoa bezala, bailarako hamabost urtetik gorakoei zuzendua. Lanak aurkezteko epea berraz da, eta irabazleek jasoko dituzten sariak ere berdina dira.

Azkenik, eta udaberriak herriko etxetako balkoietan duen eragina erakusteko, balkoi eta lore-apainketa lehiaketa antolatu du Noaingo Kultur Patronatuak. Epaimahaiko kideek ekainaren bigarren hamabostaldian epaituko dituzte lehiaketa parte hartuko duten balkoi eta leihoak.

Irabazleak 15.000 pezetako saria eskuratuko du, eta bigarren sailkatuak 5.000 pezetakoak. X

Abartzuza

Euskararen Eguna ospatuko dute Irantzuko Monasterioan asteartean

■ Lizarraldeko A eta D ereduko ikastetxe publikoek antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRALDEAKO ikastetxe publikoetako A eta D ereduko ikasle, irakasle eta gurasoek antolatuta, zazpigarren aldiz Euskararen Eguna ospatuko dute asteartean Abartzuzan, Irantzuko monasterioan. Euskararen alde aurtentzen prestatu ekitaldien artean azkena izanen da, baina ez bakarrik. Izan ere, asteartean Zudairin bildu ziren Lezaun, Villatuerta, Lizarra, Deikaztelu, Allo, Oteitza, Abartzuza, Gares, Obanos, Zirauki, Arronitz eta Zudairiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleak. Eta atzo, berriz, maila bereko Lerin, San Adrian, Mendavia, Lodosa, Sartaguda eta Andosillako 220 ikasle inguru elkartu ziren Mendavian, Euskararen Eguna ospatzeko.

Antolatzaileek, iaz bezala, hiru egunetan banatu dituzte Euskararen Eguneko ospakizunak aurtentzen ere, neska-mutil gehiegi batera ez biltzeko, bestela, ezinezkoa gertatuko bailitzateke hainbat ekitaldi behar bezala eginia.

Astearteko jaia, esan bezala, Abartzuzako Irantzuko monasterioan izanen da, eta lehen aipatu ikastetxe guzietako Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek —400 inguru denetara— parte hartuko dute.

Eguneko ekitaldiak goizeko hamarretan hasiko dira. Ordu horretan, talde guztiei harrera egin eta hamaiketako hartuko dute. Ondoren, ordu erdi beranduago, abestean duten trebezia erakusteko aukera izanen dute denek, euskal karaokea egingen baitute.

Eta kantuan aritu ondoren, arratsaldeko ordubata baino ordu laurden lehenago, zezen entzierroa izanen da, buruhandien konpartsak alaiturik. Denen gustuko ekitaldirik, beraz, ez da faltako Abartzuzako bestan. Zezen entzierroa amaituta, ordubata puntuan, elkarrekin bazkalduko dute partaide guztiak.

Euskararen Aldeko hilaren 13ko besta horretan pailazok ez dute huts egingen. Ordubi eta erdietan euren ikuskizuna aurkeztuko dute Takolo, Pirrux eta Porrotz pailazo eza-gunek. Eta laurak aldera, ekitaldi guztiak amaituta, agur esateko ordua iritsiko da.

Datorren urteko Euskararen Egunean, dena den, izanen dute berriro elkarrekin besta egiteko aukera. X

Kanpiondarren
25. urteurrena

Iruindar guztien euskaltegia

25. urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu Comedias kaleko Arturo Kanpion euskaltegiak

Arturo Kanpion Iruñeko IKAKo euskaltegian besta giroa da nagusi, 25. urteurrena ospatzen ari baitira hango ikasle eta irakasleak. Denbora ez da alferrik igaro, eta kanpiondarren etxean ere, Comedias kaleko euskaltegian, asko aldatu dira gauzak. Ez da berdina oraingo eta orain dela 25 urteko giroa Iruñeko euskal munduan erreferentzi izan den euskaltegian; bai, ordea, izpiritua.

Edurne Elizondo / Iruñea

ARTURO KANPION. euskaltegiaren 25. urtebetetzea ospatzeko prestatutako ekitaldiak abian dira jada. Apirilko ospakizunen ondoren, astelehenaz geroztik ikusgai da argazki erakusketa bat (Descalzos kaleko Iruñeko Udaleko Erraldoten Txokoa aretoan) hiriko argazkilarik gehienek osatua. Argazkilarion lanekin, halaber, *Iruñean hogeita bortz urte* liburua kaleratu du Arturo Kanpionek. Argazkiak ezezik, euskaltegiko hainbat lagunek urteurrena dela-eta idatzitakoak biltzen ditu argitalpen berriak.

Hilaren 17rako, bestalde, pilota partiduak antolatu ditu euskaltegiak, eta 21rako, kantaldia. Niko Etxart izanen da Gaierre antzokian, arratsaldeko 8etatik aurrera. Hilaren 24an, urteurrenaren berezko ospakizuna egingen dute kanpiondarrek. Eguerditik aurrera, harrijasotzaileak —Perurena aita-semeak—, dantzariak —Iruña taldea— eta bertsolariak —Sarasua, Izarzelai, Argiñarena, Mikel Taberna, Manu Gomez, Burgi— izanen dira Gaztelu plazan. Arratsaldeko 2:30etan bazkaria egingen dute euskaltegiko kideek Aranzadiko kiroldegian, eta ondoren dantzaldia.

Ekitaldiek aurrera jarraituko dute hilaren 27 eta 29an. Kafentzerkia egingen dute, Nafarroako Antzerki Eskolan, Trokolo eta Kasketa taldeek. Ekainean, bestalde, 3an, Noaingo Gatazkari buruzko hitzaldia eskainiko du Patxi Larrionek, eta biharamunean, Labrit pilotalekuan, Oskorreren *The Pub Ibiltaria* ikuskitzuna izanen da. Amaizteko, ekainaren 14an, Iruñeko mugetan barna ibilaldia egingen dute euskaltegiko kideek.

Aurrera doan euskaltegia • Argidago —aurreko ekitaldi zerrenda da horren erakusgarri—, ospakizunetarako bidea zabaltzen du urtebetze batek. Are gehiago 25. a bada, eta are gehiago oraindik, Arturo Kanpion bezalako euskaltegi bat bada urteak betetzen dituen. Baina ospakizunetara-



Euskaltegiko gaur egungo irakasle taldeko kide batzuk. Eskuinetik bigarrenera, Sagrario Aleman, eta goian, betaurrekoekin, Martin Manterola.

LUIS AZANZA

ko ezezik, atzera begiratu eta oroitzen astintzeko aukera ere eskaintzen du halako edozein urtemugk. Eta Arturo Kanpion etxe handiko hainbat biztanle eta lagunek hori egin dute, orriotan bertan.

Jorge Cortes eta Javier Cunchillos, adibidez, neurri handi batean euskaltegiaren sorrera bideratu zuten Etorkezuna Elkar-

teko kide izan zirenek, hastapenak gogoratu dituzte. «San Franzisko Xabierren, Gurutze plazako institutuan, Eskolapioetan klaseak ematen hasiak ginen. Orduan, Bilbotik Patxi Elgezabal etorri zen soldaduska egitera. Nire etxera askotan etortzen zen, eta hari proposatu nion irakasle hastea. Compañia kalean pisu bat hutsik zegoela esan zidan

Ernesto Torio lagunak; hura hartu, Javier Cunchillosen izenean jarri, eta horrela hasi ginen», laburbildu du Jorge Cortesek.

«Mundu guztiarentzat lekua izanen zuen euskaltegia izanen zela pentsatu nuen. Horrek bultzatuta egin nuen lan, eta hala izan da. Hori izan zen hasierako asmoa eta asmo horrek iraun du.

Gaur egun oraindik loratzen ari den euskaltegia da Kanpion, aurrera jarraitzen du. Zergatik? Irakasleak, ikasleak, klaseak... daudelako, baita aurrera egiteko indarra duen Sagrario Aleman bezalako emakume bat ere», gogoratu du Javier Cunchillosek.

Arturo Kanpionen ekarpena hagitx garrantzitsua izan dela uste dute biek, Iruñeko kaleetan

Felipe Rius: «Ongi pasatu nuen, giro polita genuen»

FELIPE RIUS kazetaria ikasle eta irakasle izan da Arturo Kanpion euskaltegian. Ikasle, bi urtez izan zen, eta orain dela hogeitabi. Orduan, Compañia kalean zegoen oraindik euskaltegia, izan zuen lehen egoitza. Felipe Riusek ustez, garai hartan, euskara ikasteko motibazioa orain baino politikoagoa zen. Eta giroa, berriaz, aparta: «Irakaskuntza orduan ez zen orain bezain profesionala. Uste dut pedagogia aldetik asko aldatu dela Arturo Kanpion euskaltegia, irakasleak hortara dedikatzen dira orain. Baina lehen, parranda gehiago egiten genuen —barre egiten du—, afari eta poteo asko. Giro aparta genuen gure artean eta oso ongi pasatu nuen euskaltegian eman nituen urteetan».

Bestalde, Iruñeko bizitzan, euskal kulturaren munduan euskaltegia erreferentzia izan dela uste du Felipe Riusek: «Erreferentzia izan da, eta, neu-



ri batean, erreferentzia izaten segitzen du. Beste talde asko dago orain baina gure garrantzitsua izan dela uste dut». Arturo Kanpionen 25. urteurrenean, gainera, hau erran nahi die euskaltegiko kideei Felipe Riusek: «Urte askotarako eta ikasle asko izan dezazuela». X

Itxaro Borda: «Lagun asko dut Arturo Kanpionen»

ORAGARREKO idazlea ez da ez ikasle ez irakasle izan Arturo Kanpionen, baina euskaltegiarekin duen harremana sendoa eta aspaldikoa da. Bere idatzietan ere aipatu izan du Arturo Kanpion euskaltegiaren izena, harekin duen loturaren erakusgarri. «Aspaldi sortu zen gure harremana. Lehendabiziko Sagrario Aleman ezagutu nuen, eta gero euskaltegia. Geroztik, beti adiskide gara. Iruñearekin izan nuen lehen harremana euskaltegiko jendearekin izan nuen, eta segitu dut. Beharbada ilusio batean bizitzen laguntzen dit eta horregatik segitzen dut, horko jendearekin Iruñean euskaraz egiten ahal dudalako. Denborarekin Iruñeko beste auzoak ezagutu ditut, baina mugimenduak Kanpionera eramaten nau beti».

Euskaltegiaren urteurrena hagitx garrantzitsua da, Itxaro Bordaren ustez: «Biziki ederra da, hor frogatzen baita aguan-



tatzen bada, tunelaren azpitik pasatzen bada, ez bada itzulbiderik hartzen, noizpait argirat ateratzen ahal dela». Euskaltegiko kideei zuzendutako asmoak ere baditu: «Arturo bezain zahar bizi, eta 100. urteburua ospatu. Han izanen gara elkarrekin Iruñean, ordua Roch kafetegian». X

Kanpiondarren
25. urteurrena

euskara entzuten bada, ikastolei esker ezezik, euskaltegiari esker ere badela, neurri handi batean. Haien meritu nagusia Arturo Kanpioni bultzada eman dioten gazteen esku uztea izan dela azpimarratu dute. Eta bultzada horretan, gaur egun Comedias kalean den euskaltegia lortzeko bidean, garrantzi eta meritu handikoa izan da, beste askoren artean, Sagrario Alemanek eta Martin Manterolak egin duten lana.

Ikasle guztiak bihotzean • Sagrario Aleman euskaltegi zuzendaria da gaur egun —Patxi Zabaleta izan zen lehenbizikoa eta Iñaki Zabaleta bigarrena—, eta ondoan du Martin Manterola. Hasieratik beretik dago Manterola euskaltegian. Beraz, ez zaio batre zaila egiten lehendabiziko urteetan bizitakoak gogora ekaritzea: «Ez zen erraza izan, Francoren garaian ginela ezin da ahaztu. Egokitze lanak izan ziren hasierakoak. Gastuak ahalik eta gehien murrizten genituen. Nik ez dakit zenbat euskaltzale engainatu genuen egin behar zen guztia egiteko! Eta hasi ginen. Ordurako baziren klaseak bildu eta koordinatzen hasi ginen».

Eguneroko esperientzia eta lana izan zuten une haletan lagun. Hasierako ikasle talde txikia —25 bat— laster handitu zen: 80 ikasle izatera iritsi ziren laster, urtebeteren buruan 100era, handik gutxira 200... «Ikaragarria izan zen, eta guk ez genuen esperientziarik», gogoratu du Manterolak. Ikasle talde gero eta handiagoari aurre egitea zaila izan bazen, hasierako urteetako giroak ez zuten gehiegi lagundu. «Garbitzaile bat aurkitzea ere zaila zen». Arturo Kanpion euskaltegiara joateak, gainera, poliziek fitxatuta edukitzea ekartzen zuten, Sagrario Alemanek azpimarratu legez. «Jendea kontrolatzen zuten, eta beldurra bazegoen». Ikasle eta irakasleen ilusioak eta gogoak arindu zituen orduan bizitakoak.



Arturo Kanpioneko hainbat irakasle, duela zenbait urte, Foruen monumentuaren ondoan.

Kanpoan ez zen giro, eta Arturo Kanpionen barruan, euskaltegiaren dinamika nola sortu, nola antolatu edo klaseak nola eman izan ziren konpondu beharreko hainbat auzi. «Patxi Altuna etorri zen klaseak nola eman behar genituen erakustera, bere metodoa erabiltzen genuen. Pixkanaka, gauzak finkatzen hasi ziren», aipatu du Alemanek. Irakasleen artean ere, pixkanaka, aldaketa nabaritzen hasi zen: «Unibertitate girokoak ziren hasieran, Euskal Herriko hainbat lekutakoak. Urte batzuen buruan, nafarrak ziren irakasle gehienak. Kanpionen ikasitakoak ere hasi ziren irakasle lanean, gutxinaka. Gaur egun profesionalagoak ga-

ra, lanbidetzat dugu gehienok irakaskuntza», erran du Arturo Kanpioneko zuzendariak. Euskaltegiaren antolaketari dago-kionez, «pauso historikoa» eman zela azpimarratu du Martin Manterolak: «Era askotako jendea elkartu zen Arturo Kanpion laguntzeko. Euskaldunen batasuna lortu genuen, euskaltegia jende ezberdina biltzeko gai izan zen».

Baina hori ez da Arturo Kanpionen lorpen bakarra. Iruindar asko igaro da handik euskara ikasteko. Franco hil ondoren izan zen euskaltegiaren ikasle gehien, mila inguru. Gaur egun, berriz, ia 600, eta denetara 31 irakasle. Kanpionkume asko dago, beraz, Iruñeko kaleetan. Sagrario Ale-

manentzat, euskaltegitik igaro den jende hori guztia da urte hauek utzi dioten oroitzapenik polit eta ederrena. «Nahiz eta urrun egon, nahiz eta gutxitan ikusi elkar, lotura dago gure eta hemendik igaro diren ikasleen artean, maitasuna, azken batean; jende hori maite dugu».


Eta maitasun eta harreman horrek markatu egin ditu euskaltegi kideak. Hala uste du Martin Manterolak, behintzat. «Klasea ez da klase izan, bilgune baizik. Egia erran, hemen emandako denborak markatu nau; ez dira berdinak hona ailegatzen diren ikasleak eta ateratzen direnak, denok aldatu gara». Azken

25 urteetan Arturo Kanpion asko aldatu bada, datozen urteetan, ziurrenik, aldaketa gehiago gertatuko da euskaltegian. Sagrario Alemanek hala uste du: «Egiteko asko dago. Gure betebeharrak nagusia euskaldunak ateratzea izan da, baina agian modua aldatuko da. Agian asmatu beharko dugu zerbait euskaltegiara etortzen ez den jendearengana hurbiltzeko. Eta horretarako, egungo gizarteak eskaintzen dizkigun baliabideak erabili behar ditugu, irratia dela, telebista dela, edo Internet dela...». 25 urte pasatu ondoren, beraz, etorkizunari begira dago Arturo Kanpion, beste 25, gutxienez, bete-zeko prest. Zorionak!

Jimeno Jurio: «Kanpion euskaltegien buru izan da»

JOSE MARIA JIMENO JURIO idazle eta historialaria Arturo Kanpion euskaltegi ikasle izan zen orain dela hogeit bat urte. Orditik denbora franko igaro bada ere, garai haiek ederki asko gogoratzen ditu Jose Maria Jimeno Juriok.

Historialariak oroitzen duenez, «Baztango irakaslea genuen. Gelako guztien artean nintzen zaharrena, baina baziren heldu samarrak ziren beste euskara ikasle batzuk. Gure artean giro ederra genuen. Itxaropen garaia zen hura, baita kezka garaia ere. Ikastolen eta euskaltegien mugimendua pil-pilean zegoen eta bazen aurrera egiteko gogo, ikasteko gogo. Urtebete egon nintzen bakarrik, baina haren bukaeran banintzen euskaraz nola edo hala hitz egiteko gai. Dena den, lotsa pixka bat ematen dit gaur egun euskaraz egin eta ikasi behar dela erratea, ondoegi jakin gabe».



Jimeno Jurioren ustez, garaiko euskaltegien buru izan zen Arturo Kanpion: «Erreferentzia garbia izan da, garrantzi handiko euskaltegia. Euskara erakutsi ezezik, herriarekiko maitasuna eman die Arturo Kanpionek urte guzti hauetan han euskara ikasi duten ikasleei. Zorionak». X

Patxi Zabaleta: «Euskara Iruñeko gauza bihurtu zuen»

PATXI ZABALETA idazle eta parlamentarioa izan zen Arturo Kanpion euskaltegi ikasle izan zuen lehenengo zuzendaria, baita euskaltegiaren sorrera ahalbidetu zutenetako bat ere. Euskaltegiaren sorrerako kontuak, beraz, gertu-gertutik bizi izan zituen. «Arturo Kanpion orain duen izenarekin sortu baino pixka bat lehenago —1968, 1969 eta 1970 urteak— euskara irakasten hasi ginen han-hemenka. Ikastolen alde ere lanean hasi zen jendea eta gau eskolak eta alfabetatze kanpainak sortu ziren».

Garai hartan euskararen irakaskuntzan aintzindari izan zirenak ere gogoan ditu Zabaletak. «Hori guztia gertatu zen alde batetik, eta bestetik, Iruñean gerra ondoren euskararen inguruan lanean ari zen jendearekin bat egin genuen. Tirapu maisua zegoen, Diez de Ulzurrun, Jose Zelaia. Aitzindariak izan ziren.

Koordinakunde bat egin genuen eta hortik sortu zen biltzeko beharra, eta behar horrek Arturo Kanpionen sorrera ekarri zuen».

Hala azaldu dizkigu Patxi Zabaletak gertutik bizi izan zituen euskaltegiaren sorrera uneak. Arturo Campionek Iruñean izan duen eraginari buruz ere badu zer erranik: «Eragin kuantitatibo» izan da batetik, eta kualitatibo, bestetik. Alderdi kualitatiboari dagokionez, batetik, ordura arteko mito ikaragarri bat bertan behera bota zuen euskaltegiak, hau da, euskara sehaskan ikasten ahal zela bakarrik. Bestetik, Kanpionek Iruñeko gauza bilakatu zuen euskara, giro guztiz integratzaile batean. Garaikoetxea, Cunchillos eta beste izan nituen nik, adibidez, ikasle. Eragin kuantitatiboari dagokionez, azpimarratzekoa da berehala euskaltegi ikasle kopurua biderkatu egin zela, 1974-75 urteetan, 500



edo 600 ikasle inguru genituen jada».

Arturo Kanpion euskaltegiaren inguruko bitxikeria kontatu digu Zabaletak bukatzeko: «Giro integratzaile hartan, bikote mordoska sortu zen. Ez dut dibortziorek ezagutzen, bai 20 urtetik gorako seme-alabak». X

Xanti Begiristain

Euskaraokearen bertuteak eta akatsak

■ Dagoeneko ziur naiz jende gehienarentzat ezaguna dela Euskaraokea izeneko ETB1eko abesti-programa, batez ere, haur eta gazte-txoeren artean.

Gauzak horrela, gaur programa horri buruz egin nahi dut zenbait gogoeta.

Hasteko esan behar dut ez dudala egunero ikusten, ezta programa osorik ikusi ere, baina hala ere, sarritan grabatzen dut bideoan zatiren bat, eta beranduago batez ere, ikus-entzuten ditut abestiak, desafinatzen ez dituztenean, batik bat. Beraz, esan liteke Euskaraokea ongi samar ezagutzen dudala.

Aipatu programari buruz, nik uste dut esan daitekeela, momentuz, bi aldi edo fase izan dituela gutxienez. Lehenengoan, uste dut gutxiago hautatzen zituztela haurrak, zera esan nahi dut, alegia, neska-mutil kozkor gehiago zirela desafinatzen zutenak orain baino. Bigarren aldi honetan, esan bezala, iruditzen zait gehienek askoz ere hobekiago afinatzen dutela.

Baina bigarren fase honetan badaude ezberdintasun gehiago, hau da, oraingo honetan jaitsi omen dizkiete nota batzuk abestiei, eta horrela gelditzen diren tonalitateak askoz ere egokiagoak omen dira haurren ahotsentzat, hots, umeak askoz ere errazago iristen omen dira nota guztietara, eta hori sumatu egiten da.

Bestaldetik ere, nabarmenak dira agertokiko tranpaldoan, hainbat eta hainbat abestitan aritzen diren neska dantzariak, ingurune guztiari kolore eta piper gehiago eman nahian edo.

Eta azkenik, beste ezberdintasun dezente bat, erreperorioarena izan liteke; oraingoa berria da. Beharbada, Euskal Herriko abesti gutxiago ditu, eta agian, haur-kanta gutxiago ere bai. Horretaz gain ere, aise sumatzen da hartu dituztela atzerriko abestiak edota doinuak, eta euskaratu egin dituztela.

Niri printzipioz, oso ongi iruditzen zait azken jokamolde hau, baina jakina, beti ere Euskal Herriko beste kanta askorekin konbinatuta, eta beharbada, horretan aurkitzen dut nik abusu pixka bat, izan ere iruditzen baitzait gehienbat euskaratu dituztela ingelesezko abesti oso komertzialak eta baita gaztelaniazkoak ere, baina oso kutsu espainiar eta andaluziar handia dutenak, hain zuzen ere azkeneko horiek, eta neure buruari egiten diodan galdera hau da, ingelesez eta gaztelaniazkoek gain ere, zergatik ez ote dituzten euskaratzen, era berean, Katalunia, Galizia, Frantzia, Italia, Grezia, Alemania, Errusia, Afrika, Asiakoak eta abar ere, besteak beste? Arrazoi gehiagorekin oraindik, telebistako programa hori egin nahi badute Euskal Herri osorako, behinik behin.

Baina susmoa dut, ETB1 eta Euskadi Irratian ere, sarriegitan hartzen dutela erreferentzia bakartzat Espainia, eta nire uste apalean, ezin dugu ahaztu ipar euskal herritarrek ere gure senideak direla, eta azken batean, erreferentziak hartzeko hortxe dugu mundu zabala oso-osorik.

Eta artikulutxo hau ez dut bukatu nahi guztiz bitxia gertatzen zaidan zerbaiti buruz lehenago bi hitz esan gabe, horra: zenbaitetan, haur batzuek gogotik desafinatzen dute eta arrunt gaizki kantatzen dute, baina hala eta guztiz ere, Ixiar Oreja pandero joleak, «Oso ongi! Oso ongi!» esaten die, eta beste horrenbeste, honako hauxe esaten dutenean haurrek: «Agurtzen diet hemendik gelako lagun guztiei», «agurtzen ditut hemendik gelako lagun guztiak» esan beharrean.

Nire ustea da komenigarria dela jakitea zuzentzen egokiro eta garaiz, bestela haurrek jarraituko dute pentsatzen ongi esaten dutela, telebista eredia baita. ■



Klasiko bitxi • aront klasiko

Joxemiel Bidador

Raimundo Olabide itzultzaile gasteiztarra

■ Zelen gutxi dira gure zoko ustel honexetatik pasatu diren arabarrak, are nekezago euskaldunak. Saia eta has gaitzen bada, ahal bezainbatean gutxienez, zorra hau kitatzen. Raimundo Olabide Karrera Gasteizen sortu zen 1869.eko martxoaren 15ean. Aitaren aldetiko senitateak andoalndarrak bazituen ere, esangabe doa haurtzaroan euskaraz ez zuela zirkinik ere esan, garai hartan Bitoxako hiriari oro normala zitzaionez. Villasante aitak areago dio, eta bere euskal literaturaren histori maratz bezain azalekoan sendo eta gotor baieztatu zigun: «Olabide ez zen euskaraz mintzo ez haur ez heldu, nahiz ikastearen kariak eta maila teoriko batean menderatzen zuen». Josulagundiak Orduñan zuen ikastetxean 1880.ean batxilergoa egiteko sartu zenean betiko lotuko zitzaion Lololakoaren akuilagoari, orduko berebiziko bidaldi inizatiko luzea hasiz: 1884-1893 urte bitartean Lololan, Vereuelan eta Tortosan izan zen; 1894-1905 hamar urtekoan Valladoliden, Salamancan, Oñan, Gijonen eta Manresan. 1906.ean filosofia eta letretako lizentziatura eskuratu zuen Salamancan, eta 1907.ean irakaskuntza ertainean hasi zen. 1914.ean Pontevedrako Camposancosen zegoen eta 1917.ean Valladolideko San Jose ikastetxean, baina bibliaren itzulpenarekin hasi zenetik, irakaskuntza utzirik, Orduñan eta Lololan izan genuen. 1932.ean Josulagundia dauseztatu izan zenean, Olabide Arantzazura joan zen. Bertan bulta lliburua eman zuen, eta 1935.ean Gernikara joan zen. Gerrateak hartan harrapatu zuen, baita bombardaketak ere, eta gudatea ahitu aitzinetik, 1937.ean, Okzitaniako Tolosara joateko deliberatu zuen. Hantxe berebiziko kezak sortarazten zizkion lana bukatu zuen, eta beste egitekorik ez bailuan, kamioi batekin izan istripuan zendu zen 1942.eko irailaren bederatzian.

Olabideren euskararekiko grina Campiónen gramatikak iratxeki bide zion, eta harrez geroztik horixe izan zen bere bizilema. Angel Goenagak Gasteizen 1959.ean argitara eman zuen Olabideren nekrologikoan euskara ikasteko kurritu bidearekin loturik dagoen honako pasadizo hauxe eskeini zigun: «Orduñan gertatu zan. Bazjoazten ibiliz angu nagusi zan Zabarte aita, Olabide ta Zubiaga. Ibilalditxo bat, noski, Irurak euskaraz ari ziran. Bat batean emakume batek: «Ene! Euskeraz? -Bai ha! Zergatik ez? Arritu egiten zera ala? Dio Olabidek. -Baaki, Orduñan ez da oi ta, erantzun zion. -Jakin ezker Orduñan ta nun nai, berriz Olabidek. -Barka beza, beña beori ere ez da ba emengoa. erantsi zion emakumeak. -Ez, Gasteizkoa nazu. -Ene, Gasteizkoa ta euskaraz? Nun ikasi du? -Valladoliden asi, Salamancan jarrai, ta Pontevedrako Camposancosen bukatu, erantzun zion Olabidek». Eta halaxe da. Euskara ikasteaz gainera, euskaltzain osoa izan zen elkartearen hasieratik gainera.

1914.ean, Pontevedrako Camposancosko eskolan ziharduera bere lehendabiziko lana argitara eman zuen Bilbon: *Loyola'ar Eneko deuren Gogo-ñarkunak*, hau da, San Inazioaren erdal liburuaren itzulpen zuzena. Gehiegizko purismoaz eginaren salaketa leporatu zit, euskara teknikoegia baina kolorerik gabekoa, hauxe bai sinestesia. Onaikiak eder du Gasteizkoaren lana ordea, eta harritu egiten da erabilitako langaen urritasuna ezagutzean: Campión, Lardizabal, Azkue, Arana-Goiri eta Eleizalde. Urri litezke baina pisuzko ere bai zinez. Hona Olabide mintzalari, itzulpena ez den pasarte batean: «Orra idazirik pitiñetako, baña ospetsuenetako ere bat. Txikarra bai da, baña goi jakitez izorra: azal zakarra bai du, baña mami goxoa. Aren gun azkarra! Itxas orratzak lajn, noruntz arteztu bear ditugun bai bizitza osoa, baita bizitzune ta urrats bakoitza erakusten digu, arazorik nasienetan ere».

1917.ean *Giza-soña* izenburuko bere bigarren lana argitara eman zuen Tolosan. Pontevedran izkiriatu zuen, sarreran agertu zuen gisan. Sarreran ere gauza gehiago aitortu zizkigun, barbarako lanaren ontzeko harrobirik emankorrena Azkueren hiztegia izan zuela: «Uraxe da euzkeltzaleentzako iturri joritsua! Gipuzkoan olaentzat ur-tanta guziak biltzen dituzten bezela, Azkuek ifongo euzkel itzak bere iztegian, ifork baño obeki bilduak dakarki». Zetorren urteko irailaren lehen astean Oñatin burutu Lehenbiziko Euskal Ikasketen Batzarrean aratz maratz azaldu zituen bere asmoak *Lexicología y lexicografía* izenburuko erderazko hitzaldian. Olabideren aburuz orduz geroz egin beharreko hiztegi-gintzak tematikoa behar zuen izan, gaika antolatuta, eta horren gauzatzeko letorkigu Giza-soña: «Izen pillo au argitara jaurtitzen det aizkide askoren onuz. Euzkeltzaleak atsegiñez artzen badute, beste pillo batzuek darraiokete, bildu ditzakedan euzkel-itzak, jakingal bakoitzak daskanez, euzkel idazleei dakartzkiedala, aien arloa nolabait arintzeko, ta bearra zaigun euzkel-idaztijasa gertutzeko». Horrela beraz, daukagun honen antzekoak osatzeko guraritan ibili zitzaigun arabarra, kimia, pisia, lugintza, izadia... «Beste pillo baten bereala Giza-gogotzaz jardutekoak argitalduk ditut. Eta bide ortaz jakingal oroen zear igaroko naiz, porrokatutako ormaen arri banatuak ifon-dikan ere biltzen, yauregi osorik eraiki arteraino». Ez zion eutsiko bide honi halaz guziz, nahiz Gabirel Jauregi aramaiorak neurri batean bederen okertutakoaren zama arinduko liokeen geroxeago.

1920.ean Kempisen *Josu-Kistoren Antzibidea* liburuaren bere aldaera argitaratu zuen Donostian. Orixeren oneritza jaso zuena: «Euskaltzain Olabide ortan ari duzu aspaldi. Gogo-ñarkuna'etan laxko, Kristoren antz bide'n samurrago, geroago ta ixurberago. Erriarentzat ez baino erdiko jakintsuentzat ari da, ta barkakizun ez ezen goresgarri ere ba da». Hauxe benetan aztoratu zuen lanaren aurrekaria baizik ez dugu. Lehenbiziko emanaldia 1931.ean argitaratu zuen Bilbon *Verdes-Atxirikarenean*, hau da, *Itun berria* deritzan liburu bilduma osoa. Bibliaren itzulpen osoa hil ostein agertuko zen. *Itun zar eta berria* izenpean, 1958.ean eta Bilbon ere. Argitalpenaren akuilagoa Taiwanen misiolari zegoen Frantzisko Etxeberria ordenkideak hartu zuen, eta ezaguna da Hegoaldean argitara emaniko Bibliaren lehendabiziko itzulpena dela. ■

Malerrekako toponimiaz

Ituren, Doneztebe, Zubieta eta Elgorriagako leku eta etxe izenak aztertu ditu Andres Iñigok

Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, Andres Iñigoren *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)* argitaratu berri du. Iñigok, Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofizialeko zuzendari eta Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkariak, hamar urtez egindako tesia bildu du liburuan, Malerrekako 3.000 etxe eta toki izen, alegia. Horien azterketa linguistikoa egin du Iñigok.

Edurne Elizondo / Iruñea

ANDRES IÑIGOREKIN Euskaltzaindiak Iruñeko Conde Oliveto kalean duen egoitzan mintzatu gara. Solasaldia amaituta, Iturengoak erran digun hitz bakoitzean nabaria da liburua argitaratu izanak sortu dion poza. Bi kilo eta erditik gorako poza, gainera, hala ere pisua baitu denetara zazpiehun orrialde baino gehiago bildu dituen lanak.

Orrialdeak bezala, anitz izan dira Andres Iñigok orain liburu den tesiari eskaini dizkion orduak eta urteak. Horregatik, ahaleginaren emaitza mahai gainean ikustekoa kontent jarri du euskaltzainak.

Andres Iñigoren toponimia aztertzeko interesa ez da gaurkoa, gazte denboran irakasle batek herriko izenak ikertzeko egin zion eskaeran baitu hasiera. Ondoren, karrera amaituta, Iturengo toponimia hartu zuen aztergai tesina egiteko; Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Zubietakoa, azkenik, tesia prestatzeko. 1994. urtean aurkeztu zuen orain 12 urte hasitako lana.

Ahozko informazioa jaso ezezik, dagoen dokumentazioa arreta handiz aztertu du Iñigok. Batez ere Notarioen Protokoloa izan du lan horretan lagun, «artxibo hori baita interesgarria, eta aberatsena».

Toponimiaren bitxikeria eta ezustekoak

Liburuaren izenburuak argi azaltzen duen bezala, Santesteban de Lerín bailarako —gaur egungo Malerrekako, gutxi gora-behera— toponimia aztertu du Andres Iñigok. 1845. urtean bailara banandu zen, baina Erdi Arotik ordura arte izen hori izan zuen historian zehar zenbait herri bildu dituen ibar horrek.

Hasieran, antza denez, Doneztebe, Ituren, Elgorriaga, Zubieta, Donamaria, Oitz eta Urrotz ezezik, Bertizarana eta Sunbilla ere Santesteban de Lerinen zati ziren. 1630. urte inguruan bailarako kide izateari utzi zioten arte.

Herri izenen zerrenda hori aipatu bezain pronto, tesia egitean aurkitu dituen bitxikerietako bat —eta asko eta asko izan dira— gogoratu du euskaltzainak: «Donamaria, lehen, auzo bat zen, eta Ibargoiarrak zuen izena. Baina, harriztekoa bada ere, izen hori erabat galdu egin da. Orain dela mende bat arte barra-barra agertzen zen agrietan, Ibargoiarrako errota zela, Ibargoiarrako Santa Maria eliza zela, eta orain, herriko zaharrei galdetu, eta inork ez du gogoratzen, inoiz ez dute entzun».

Alderantzizkoa gertatzen da Malerrekako izenarekin: «Nahiz eta denek ezagutu eta erabili, ez da inon agertzen dokumentaturik», dio Iñigok.


Santesteban de Lerín bailarako toponimia, beraz, ikuspuntu historikotik aztertu du Andres Iñigok. Ibarreko herrien artean, Zubieta, Doneztebe, Ituren eta Elgorriaga hautatu ditu. Lanak bi atal nagusi ditu; alde batetik leku izenak aztertu ditu euskaltzainak —eta horren barruan toponimia nagusia eta txikia—, eta, bestetik, etxe izenak. Azken atal horri dagokionez, hain zuzen, gutxi ikertutako gaia dela azpimarratu du Iñigok. Euskaltzainak, gainera, azentuei eskainitako atala eta herrietako mapak gehitu dizkio lanari, eta guztia argitaratu.

Ituren, Zubieta, Doneztebe eta Elgorriagako leku izenei dagokionez, oso aberatsak direla azpimarratu du lehenik eta behin Hizkuntz Eskolako zuzendariak. «Izen asko dago. Horrek zerikusi handia du dermioaren ezaugarriekin. Oso laua denean, askoz izen gutxiago dago, ezta hamar ere kilometro karratuko. Hemen, ordea, batez beste 50 izen ditugu kilometro karratuko, leku menditsua delako. Kontuan hartu behar da nekazaria izan dela jendea inguru horretan, eta leku guztiei jartzen zieten izena, identifikatzeko. Gainera, gero eta herri txikiagoa izan, gero eta izen gehiago dago. Nik aztertu ditudan herrien artean, adibidez, Elgorriaga da txikiena, eta izen asko dago han».

Leku izenak aztertzekoan, ezusteko asko aurkitu du Andres Iñigok. Horietako bat, bere herrian bertan, inork ezagutzen ez dituen bi auzo izen topatu baititu: Igeribar lehenengoa, Irugun bigarrena. «Igeribar, adibidez, errota ondoan zegoen auzo zen, eta horregatik du izen hori, hain zuzen, errota baita igeras».

Izenek eman diote beste sorpresarik ere, baita pertsona izenek ere. Gai hori tesian landu ez badu ere, aurkikuntza politak egin ditu Andres Iñigok. «Emakumezkoen izenak egiteko, adibidez, modu bitxia zuten. Neska jaio berri bati leku izen bat jarri nahi bazioten, hain zuzen, izen hori emakumezko izen bilakatzeko, Mari jartzen zioten aurretik. Horrela sortu ziren, adibidez, Maribertiz, Mariarano, Marisunbill, Maribaztan eta Marioitz. Gizon izenei Mari aurretik jarri eta emakumezko izenak sortzen zituzten ere: Marimiguel, Mariesteban, Marimartin, Marijuan, Marimatias...».

Bildutako hitzen azterketa



Andres Iñigo, argitaratu duen liburua eskuetan duela, Hizkuntz Eskolako bulegoan. LUIS AZANZA

linguistikoa egitean ere bitxikeriak aurkitu ditu Iñigok; hizkiak batzutan nola desagertzen diren ikustean, adibidez. Euskaltzain-

nak adibide bat aipatu digu: «Otexon. Oteitzaren oihana erran nahi du, Doneztebe inguruko mendi bat da. Adibide horrek argi

uzten du dokumentazioak duen garrantzia, bestela ezinezkoa baita batzuetan izenak nondik datozen jakitea».

◆ Etxe izenak sailkatu eta aztertu

ANDRES IÑIGOREN *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)* liburua, leku izenak ezezik, etxe izenak ere aztertu ditu. Euskaltzainak gai «interesgarri eta polita» dela azpimarratu du etxe izenena.

Toponimoekin egin bezala, ikerketan aurkitutako etxe izen guztiak aipatu eta aztertu ditu Iñigok lan horretan, baita izen horiek hainbat ataletan banatu ere.

Sailkapen horren arabera hainbat multzotan banatu ditu Andres Iñigok etxe izenak. Adibidez, askotan etxearen jabearen lanbideak eman dio izen-erailkariari, Andres Iñi-

gok ikusi duenez. Nekazaritza ezezik, beste industria mota asko ere bazegoela erakutsi dio horrek euskaltzainari. Etxe izen hauek aipatu dizkigu adibide gisa: Arotxenea Zubietan, Bastagillenea Donezteben, Errementaldegia Elgorriagan, Errementarienea eta Errotazaienea Iturenen, Arakiñena eta Argiñarena Donezteben, Argiñenea Elgorriagan, Ituren eta Zubietan, Kupelagillena' Elgorriagan, Puñalgillenea Donezteben, eta abar eta abar.

Izen propioak ere etxea izendatzeko iturri aberats eta erabiliak dira Iñigok aztertu dituen herrietan, baita izengoitak ere. Izen propioen artean, Do-

mingonea, Domekarena, Bizentenea, Blaseña, Alontsonea, Adamenea eta Joanenea dira aipagarri; izengoitien artean, berriz, Amorosarena, Gaztearena, Ponpoxenea, Pierrenea eta Juanatxiplarena.

Etxe izenak osatzeko erabiltzen ziren atzizkiak ere aztertu ditu Andres Iñigok, eta, azpimarratu duenez, agiri zaharretan -rena atzeratzen da gehien. «Plexkanaka, dena den, atzizki hori aldatu egiten da, eta -enea agertzen da. Fenomeno hau, batez ere XVIII. mendean gertatu zen, baina badira XVI. eta XVII.eko kasuak ere. Badira -koa atzizkia erabiliz sortutako izenak ere. Gra-

matika liburu batean irakurri nuen Euskal Herrian mendebaldeko fenomeno zela, baina hemen ere gertatzen da, Zubietan, hain zuzen. Bitxia da. Zubietan, halaber, bi forma horiek batera erabiltzen dituzte».

Bada Iñigok aipatu duen beste atzizkia, -baita, alegia: «Bortzrietan erabiltzen da, baita Sunbillan ere, eta Donezteben aurkitu izan ditut batzuk. Baina Zubieta, Ituren eta Elgorriaga aldean, ez da agertzen. Iturenen bakarra dago, gure sortetxea, Mariestebanbaita».

Antza denez, inguru horretara mugatzen da atzizki horren erabilera etxe izenak sortzeko. X

◆ Pilar Marin ◆ SOS Arrazakeriako kidea

«Harreman afektiboak bultzatu nahi ditugu»

Kulturen Arteko Heziketa Aretoa, joan den astelehenaz geroztik eta bihar arte, zabalik da Iruñeko Gotorlekuko Armen Aretoa SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundearen eskutik. Arabiarren, latinoamerikarren, afrikarren eta ijitoen kulturak eta herri horietako lagunak ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Edurne Elizondo / Iruñea

ASTEARTE goizean, Iruñeko hainbat ikastetxetako neska-mutilek bete zuten Gotorlekuko Armen Aretoa. Ijitoen gunean Niña Pastoriren kantak abesten zituzten bitartean, arabiarren tea edaten zuten. Arratsaldean, lasaiago zen giroa, eta Pilar Marinekin hitz egiten genuen bitartean, tea dastatzeko aukera izan genuen guk ere.

■ Hirugarren aldiz ospatzen ari zarete aurten Kulturen Arteko Heziketa Aretoa. Aurreko urteetako esperientzia ona izan dela erran nahi du horrek?

Bai, eta gazteek ekitaldi horri buruz eman duten iritziak balezatzen du hala izan dela. Gustukoa dute, eta oso interesgarria iruditzen zaie. Kontuan hartu behar da aretoan bi publiko mota biltzen direla, alde batetik gazteak, ikastetxetatik etorritakoak, eta, bestetik, publiko zabalak, arratsaldez iruindar guztientzat baitago zabalik erakusketa. Dena den, lan pedagogiko handiena goizez egiten dugu, gazteekin. Lau gune daude, lau kultura: arabiarrak, ijitoak, latinoamerikarrak eta afrikarrak. Gune bakoitzean hainbat tailer egiten ditugu eta horietan egiten dute lan gazteek.

■ Berrikuntzarik ekarri al du aurtengo Kulturen Arteko Heziketa Aretoa?

Ildo beretik jarraitu dugu. Dena



Pilar Marin SOS Arrazakeriako kidea, Iruñeko Gotorlekuan.

LUIS AZANZA

den, iaz parte hartu zuten gazteen iritzia kontuan hartuz, aldaketa batzuk egin ditugu. Aurten, hain zuzen, ikastetxetako irakasleekin lan egin dugu, lan didaktiko berezia prestatu dugu, eta ikastetxeetan banatu dugu. Beraz, etorri diren gazteek landu dute gaia aurretik, eta bukatu ondoren ere, landuko dute. Haien iritzia ezagutu nahi dugu, halaber, eta esaten dutenaren arabera datorren urteko ekitaldiak prestatuko ditugu.

■ Zuen asmoa kulturen arteko ezagupena bultzatzea da. Hemen ikusi eta ikasitakoak hemendik kanpo isla duela uste duzu, eraginkorra dela?

Bai. Kontuan hartu behar dugu kultura bakoitzari eskaintako gunean, kultura horretako ki-

deak ari direla lanean. Beraz, gune horietara jotzen duten gazteen eta kultura ezberdinetako kideen artean harremana sortzen da, harreman afektiboa. Eta hori oso garrantzitsua da, bestela, harreman horiek sortzeko aukera gutxi baitago gure gizartean. Pentsatzen dugu harreman afektibo horren bitartez gauzak bestela ikusten direla. Aretoa egindako lanari buruz gazteek esaten dituzten gauzen artean, adibidez, azpimarratzen dute hona ailegatu arte ez zutela senegaldar batekin inoiz hitz egin, eta Senegalen gauza interesgarri asko dagoela konturatu dira. Eta gure ustez, horrek balio du gero gizarteko ezberdintasunen bizitzeko. Beste kulturetako kideak gertutik ezagutu ondoren, beldurra galtzen dute, atzerritarra jada ez da ezezaguna.

■ Harreman zuzena, beraz, garrantzitsua da zuentzat. Aretora hurbiltzen diren gazteek nolako erreakzioa izaten dute lehenengo momentuetan?

Denetarik dago. Baina nabaritzen da ikastetxeetan gaia landu duten edo ez. Lehenagotik landu badute, harrera hobea da, eta aretoan ikusi eta egindakoari buruz ematen duten iritzia ere, hobea da. Taldeka etortzen dira, hamabost edo hamasei urte inguruko gazteak dira, eta batzuetan kostatzen zaie kontzentratzea, baina, oro har, oso ongi hartzen dute esperientzia berria. Harrituta gelditzen dira.

■ Ezberdina da arratsaldez etortzen direnen jarrera?

Bai. Arratsaldez publiko zabalarentzat irekitzen dugu erakusketa, eta, oro har, adineko jendea etortzen da. Batez ere ikustera etortzen dira, ez hainbeste parte hartzera, edo tallerretan lan egitera. Beraz, agian aretoak dituen helburu guztiak ezin dira bete, baina kultura ezberdinen arteko ezagupena, harremana gertatzen da.

■ Hainbat arrazatako kideen arteko tolerantzia bultzatu nahi du Kulturen Arteko Heziketa

s o s l a i a

Vianan sortu bazen ere, Iruñean bizi da Pilar Marin SOS Arrazakeriako kidea. Lanbidez erizaina da, baina azken zortzi hilabeteetan, gobernuz kanpoko erakunde horri eskaini dio denbora libre guztia nafarrak.

Saharar herria ezagutzeko egindako bildaiaren ondoren erabaki zuen Pilar Marin SOS Arrazakerian sartu nahi zuela, gutxiengoekin lan egiten duen elkarte delako, hain zuzen ere. Eta Vianako erizainarentzat, lan hori funtsezkoa da gaurko gizartean.

SOS Arrazakerian orain dela zortzi hilabete sartu zenez, aurreko lehendabiziko aldiz ezagutu du Kultura Ezberdinen Arteko Heziketa Aretoa Pilar Marin. Eta asko gustatu zaio. Elkarteko boluntario gazteek dena antolatzeke egiten duten lana azpimarratu nahi izan du gainera.

Aretoak. Dena den, Iruñean bertan, askotan atera da SOS Arrazakeria kalera azken hilabeteetan, arrazakeria salatzen. Nolako egoera dugu Nafarroan?

Areto horren bidez, hain zuzen, azken hilabeteetan bizi izan ditugun jarrera arrazistak prebenitu nahi ditugu. Egia da, dena den, kalean halako jarrera arrazistak ikusten direla. Eta horren aurrean, Administrazioari eta Justiziarri erantzun gogorragoa eta sendoagoa eskatzen diegu, askotan zaila baita jarrera arrazista duen establezimendu baten aurka egitea. Eta aisialdiarekin zerikusirik duten establezimenduetan jarrera arrazistak gora egin duela uste dugu, taberna eta diskoteketan. Baina ez dugu ahaztu behar, immigranteek beste lekutan ere bizi dutela diskriminazioa, hezkuntza, osasuna edo lan arloan, alegia. Eta horrek min handiagoa egiten die, hori da benetan kezkatzen dituen, lana edo etxebizitza ezin lortzeak kezkatzen ditu. x

BEKARIO!

Zaldi Eroa

Maikel
AND
PRIMITIBO
BMS
PUTREAK
(Berriz ere!)

